

## III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

### EUSKO JAURLARITZA

#### ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

Laneko, Enplegu eta Gizarte Politiketako Arabako Lurralde Ordezkaritza

#### **Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, EA (VISESA) enpresaren hitzarmen kolektiboko 2015eko soldataren berrikuspena**

Ebazpena, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Laneko, Enplegu eta Gizarte Politiketako Arabako lurralde ordezkararena. Honen bidez ebazten da Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, EA (VISESA) enpresaren hitzarmen kolektiboko 2015ko soldaten behin betiko berrikuspena erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea. Hitzarmenaren Kodea: 01100242012013.

#### AURREKARIAK

2016ko irailaren 13an aurkeztu da, Ordezkaritza honetan, aipatutako hitzarmen kolektiboko negoziazio batzordearen akta, enpresaburuaren eta langileen ordezkariek 2015eko azaroaren 17ko negoziazio-mahaian sinatutakoa, 2015eko behin betiko soldata berrikuspenen kariaz.

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Langileen Estatutu Legearen 90.2 artikulua, urriaren 23ko 2/2015 Errege Dekretu Legegilea (2015eko urriaren 24ko BOE) aurreikusten duen eskuduntza lan agintaritza honi dagokio, apirilaren 9ko 191/2013 Dekretuko 19.1.g artikulua –Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko egitura organika eta funtzionala ezartzen duena (2011ko apirilaren 4ko EHAA)- dionarekin bat etorritik eta urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuarekin (2011ko otsailaren 15eko EHAA) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuarekin (2010eko ekainaren 12ko BOE) – hitzarmen kolektiboaren erregistroari buruzkoak- lotuta.

Bigarrena. Hitzarmen kolektiboaren negoziazio batzordeak hartutako akordioa aipatutako Langileen Estatutuari buruzko Legeko 88, 89 eta 90. artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki sinatu da.

Honen ondorioz,

#### EBATZI DUT

Lehenengoa. Euskadiko Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboaren Erregistroko Arabako Lurralde Bulegoan erregistratu eta gordailatzeko agintzea eta aldeei jakinaraztea.

Bigarrena. ALHAOn argitara dadin xedatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko urriaren 4a

*Arabako lurralde ordezkarria*  
**ÁLVARO IRADIER ROSA**

Vitoria-Gasteiz, 2015eko azaroaren 17a

#### Bildu dira

Batetik, zuzendari nagusia, Etxebizitza eta Lurra, SA (VISESA aurrerantzean) sozietatearen izenean eta hura ordezkatzuz.

Bestetik, VISESAko enpresa-batzordea.

#### Adierazi dute

VISESAren Zuzendaritza Nagusiak eta enpresa-batzordeak 2015eko irailaren 22an sinatutako akordioaren bidez onartu ziren VISESAren soldata-kategoriak (soldata-mailen taula). VISESA - Etxebizitza eta Lurra, SA sozietate publikoaren hitzarmen kolektiboaren hasierako testuko eranskinetan daude bilduta taula horiek (ALHAO, 2013ko martxoaren 6a). Bada, akordio horri jarraipena emate aldera, alde biek, honako hau

#### Erabakitzen dute

Lehenengoa. Dokumentu honi atxikitako lanbide-kategorien eta soldata-mailen taulak onartzea. 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera egongo dira indarrean eta aipatutako hitzarmen kolektiboaren I. eta II. eranskinetan bildutakoak ordezkatzeko dituzte adierazitako data horretatik aurrera. Hitzarmenaren gainerako testua bere horretan geratutako da oso-osorik.

Bigarrena. Adierazitako akordioa laneko agintaritza eskudunean gordetzeko eta erregistratzeko, horretarako beharrezkoak diren izapideak eta ALHAOn argitaratzeko izapideak AA eta PTren gomendio uztea. Aipatutako eginkizunetarako, akordioa sinatu duten alde bien izenean jardun ahal izango dute bi horietako edozeinek.

Beste aztergairik ez dagoenez, dokumentu hau izenpetu dute idazpuruan adierazitako tokian eta egunean.

#### Eranskina

KATEGORIA	SOLDATA-MAILA	OINARRIZKO SOLDATA 2015EKO OINARRIAK
Zuzendaria	II.	61.630,47
Koordinatzailea	III.	53.592,52
I teknikaria	IV.	50.245,45
II teknikaria	V	46.129,93
III teknikaria	VI	41.920,14
I erdi mailako teknikaria	VII	38.809,00
II erdi mailako teknikaria	VIII	36.341,43
Idazkaria	IX	33.925,75
Ofizial administraria	X	32.101,80
I administraria	XI	28.757,54
II administraria	XII.	27.285,00
Administrari laguntzailea	XIII	23.336,62